

XEDAPEN OROKORRAK

OSASUN SAILA

2721

79/2018 DEKRETUA, maiatzaren 15ekoa, zeinaren bidez elikagai-enpresa eta -establezimenduen baimen sanitarioen eta komunikazioen erregimena arautzen baita eta Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai-establezimenduen erregistroa (ELESE) sortzen baita.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren elikagaien higienari buruzko 2004ko apirilaren 29ko 852/2004 (EE) Erregelamenduak ezartzen duenez, elikagai-enpresetako operadoreek adierazi behar diote agintaritza eskudunari –agintaritza horrek eskatzen duen moduan– elikagaiak ekoizteko, transformatzeko eta banatzeko zer establezimendu dauzkaten beren kontrolpean, erregistratuta gera daitezen. Era berean, agintaritza eskudunak informazio eguneratua izan dezan, jarduerari eta establezimenduaren itxierari eragiten dion edozein aldaketa esanguratsu gertatuz gero, enpresa horiek jakinarazi beharko diote agintaritzari (6.2 artikulua). Halaber, erregelamendu horretan aipatzen denez, agintaritza eskudunaren baimena beharko da establezimendua kokatzen den estatuko legeria nazionalak hala eskatzen duenean eta 853/2004 Erregelamenduak (EE) jasotzen dituen kasuetan (853/2004 Erregelamendua (EE), 2004ko apirilaren 29koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, animalia-jatorriko elikagaien higienari buruzko arauak ezartzen dituenak); izan ere, 853/2004 Erregelamenduak ezartzen duenez, animalia-jatorriko elikagaiak manipulatzeko dituzten establezimenduek (III. eranskinekoak) ezin izango diote jarduerari hasiera eman harik eta agintaritza eskudunak baimena eman arte.

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren 25.1 artikuluan adierazten denez, erregelamenduz ezarriko da baimen sanitarioaren beharra, baita enpresak eta produktuak arrazoi sanitarioengatik erregistratu beharra ere, eta, horretarako, lege honetan xedatutakoa hartuko da oinarritzat, baita Osasun Publikoari buruzko Lege Orokorrean ezarritakoa ere. Era berean, artikuluko 2. puntuan daude zehaztuta zein diren baimen sanitarioek eta nahitaezko erregistroek bete behar dituzten betebeharrak.

Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorrak xedatzen duenez, administrazio sanitarioek erantzukizunpeko adierazpena eta jarduera hasteko alde aurreko komunikazioa egiteko betebeharra ezarri ahal izango diote osasunean eragina izan dezaketen jarduerak egiten dituzten instalazio, establezimendu, zerbitzu eta industriei (29.2 artikulua), aplikatzekoa den araudi sektorialarekin bat etorritik eta zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko azaroaren 23ko 7/2009 Legean jasotakoa kontuan izanda.

Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzko uztailaren 5eko 17/2011 Legeak ezartzen duenez ere, Administrazio publikoek behar diren erregistroak sortu edo edukiko dituzte, elikagaien segurtasunaren arloko esku-hartzeak eragin ditzaketen egoeren berri izateko, eta hori erregelamendu bidez ezarriko da (24. artikuluen 1. eta 2. zenbakiak).

Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrari (RGSEAA) buruzko otsailaren 18ko 191/2011 Errege Dekretuak erregistro bateratu eta estatal hori sortu du, bertan sar daitezkeen autonomia-erkidegoek kudeatutako erregistroetan dauden datuak, erregistroetan inskribatzea, aldaketak egitea eta ezereztea beharrezko duten elikagai-enpresa eta -establezimenduei dagozkienak. Horretarako, operadore ekonomikoak alde aurreko komunikazio bat, datuak aldatzeko komunikazio bat edo baimena lortzeko eskabide bat aurkeztu beharko du. Azken kasu horretan,

853/2004 Erregelamenduko (EE) III. eranskinean sartuta dauden animalia-jatorriko elikagaietarako bakarrik; izan ere, horiei dagokienez, 4.2 artikuluan adierazitakoa bete beharko da.

Aipatutako errege-dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten elikagai-establezimendu eta -enpresek ez dute inskripziorik egin behar Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrean, erregistro autonomikoetan baizik.

Beraz, dekretu honen helburua da elikagaien segurtasunaren arloa egungo araudi-esparrura egokitzea, erregulatuz baimen sanitarioa lortzeko prozedurak edo Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden elikagai-enpresa eta -establezimenduek jarduera hasteko komunikazioa egiteko prozedurak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai-establezimenduen erregistro autonomikoa sortzea, bertan erroldatuta edo erregistratuta gera daitezen EAEn elikagai-jardueraren bat egiten duten establezimendu guztiak –hargatik eragotzi gabe establezimendu-mota batzuetan beharrezkoak diren beste erregistro batzuk–, datuek ematen duten informazioa kudeatuz, osasun publikoa babesteko xedez, kontrol ofizialen programazio egokia bermatuta.

Erregistro autonomiko horretan, maiatzaren 17ko 76/2016 Dekretuan eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten elikagai-establezimenduak ere sartuko dira (76/2016 Dekretua, Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitze baldintzak ezartzeko dena).

Horren ondorioz, Osasuneko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat eta Gobernu Kontseiluak 2018ko maiatzaren 15ean eginiko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.– Dekretu honen helburua da osasun publikoa eta pertsonen osasun-eskubideak babestea, kontrolatuz hala Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan jarduten duten elikagai-establezimenduen eta -enpresen jarduerak nola establezimendurik ez duten enpresak izanik beren egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresak.

2.– Helburu hori betetzeko, arau honek xede hau du:

a) Erregulatzea baimen sanitarioaren eta jarduera hasteko eta datuak aldatzeko komunikazioaren prozedura –erregistroko inskripzioa ezerezteko prozedura barne dela–, hala Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten elikagai-enpresa eta -establezimenduen nola establezimendurik ez duten enpresak izanik beren egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresena.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai-enpresa eta -establezimenduen erregistroa (aurrerantzean, ELESE) sortzea; zeina publikoa eta bakarra izango da baita Euskal Autonomia Erkidego osorako.

2. artikulua.– Elikagai-enpresa eta -establezimendu betebeharrak.

1.– Jarduera hasi baino lehen, baimen sanitarioa lortu beharko dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren animalia-jatorriko elikagaien higienari buruzko arauak ezartzen dituen apirilaren 29ko 853/2004 Erregelamenduan (EE) aipatzen diren animalia-jatorriko produktuen elikagai-enpresa eta -establezimenduek, hala Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten dutenek nola establezimendurik ez duten enpresak izanik beren egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan dutenek.

2.– Elikagai-enpresa eta -establezimenduek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean dekretu honen 4. artikuluan zehaztutako jarduerak egiten badituzte, jarduera hasteko komunikazioa egiteko betebeharra izango dute.

3. artikulua.– ELESEaren esparrua eta izaera.

1.– ELESEak izaera autonomikoa eta publikoa izango du, eta datu-base informatizatu gisa erakutsiko da.

2.– ELESE koordinatu, kudeatu eta administratzeko ardura izango dute osasunaren arloan eskumena duen sailaren barruan osasun publikoaren eta elikagaien higieneari buruzko eginkizunak eta jardun-arloez arduratzen diren administrazio-organismoak, eta modu deszentralizatuan kudeatuko dute Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordeak, osasun publikoko eskualdeak eta Osasun Sailarekin helburu horretarako lankidetzak-hitzarmenak izenpetzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako udalak.

4. artikulua.– ELESEan inskribatzea.

1.– ELESEan egin behar dute inskripzioa hala Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten elikagai-enpresa eta -establezimendu guztiek nola establezimendurik ez duten enpresak izanik beren egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa guztiek, baldin eta:

a) Haien jardueraren xede badira gizakien kontsumorako janariak edo elikagaiak, elikagaiekin kontaktuan egoteko diren materialak eta objektuak eta elikagaien prestakuntzarako erabilitako laguntzaile teknologikoak, eta baldin eta jarduera horiek honako kategoria hauetako batean sailkatu badaitezke: produkzioa, transformazioa, elaborazioa, ontziratzea, biltegitratzea, banaketa, garraioa eta inportazioa.

b) Elikagai-establezimendu eta -enpresa iraunkorrak edo sasoikoak izanik, saltzeko edo azken kontsumitzaileari *in situ* emateko –etxez etxeko banaketarekin edo banaketarik gabe– edo kolektibitatei emateko elikagaiak manipulatu, transformatu, ontziritu, biltegitratu edo zerbitzatu badituzte.

2.– ELESEaren, maiatzaren 17ko 76/2016 Dekretuan eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten elikagai-establezimenduak ere inskribatuko dira (76/2016 Dekretua, Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitzeko baldintzak ezartzeko dena).

3.– 2.1 artikuluan aipatutako enpresak ELESEan inskribatzeko, lehenbizi Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorra inskribatu behar ditu, eta identifikazio-zenbaki nazionala eman behar die, 6. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera baimenduak izan ondoren.

4.– Artikulu honen 1.a) puntuan aipatutako enpresak ELESEan inskribatzeko, lehenbizi Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorra inskribatu behar ditu, eta identifikazio-zenbaki nazionala eman behar die, 7. artikuluan ezarritako komunikazio-prozedura bete ondoren.

5.– Azkenik, artikulu honen 1.b) eta 2. puntuetan aipatutako enpresei erregistro-zenbaki bat emango die ELESEak, 7. artikuluan ezarritako komunikazio-prozedura bete ondoren.

5. artikulua.– Erregistroaren edukia.

1.– ELESEaren inskribatuko dira:

a) Dekretu honen 2. artikuluan aipatutako enpresa eta establezimenduen jarduerak hasteko baimena eta komunikazioa; horretarako, dagokion inskripzioa egingo da, dekretu honen 6. eta 7. artikuluetan ezarritako prozeduraren arabera.

b) Elikagai-enpresa eta -establezimenduei buruzko datuen edozein aldaketa, baldin eta erregistro inskripzioari eragiten badio.

c) Elikagai-enpresa eta -establezimenduen jarduera behin betiko uztea; horrek inskripzioaren ezereztea ekarriko du.

2.– Elikagai-enpresen eta establezimenduen inskripzioa elikagai-enpresaren edo -establezimenduaren titularrak eskatuta egingo da.

3.– Elikagai-enpresa edo -establezimenduaren titularrek jakinarazi egin beharko diote ELEASEari 1. puntuko b) eta c) letretan aipatzen diren gorabeherak, horiek gertatu eta gehienez ere hilabeteke epean. Komunikazio hori jaso ondoren, inskripzioa aldatu egingo da edo, kasuaren arabera, ezereztu.

4.– Erregistroko inskripzioa ofizioz aldatu eta ezereztu daiteke baldin eta Administrazioak ikusten badu inskripzio-datuak ez direla zuzenak edo elikagai-enpresak edo -establezimenduak jarduera utzi duela.

5.– Dena dela, ofizioz egindako aldaketa edo ezereztapena interesdunei jakinaraziko zaie, edo, hala dagokionean, haien ordezkari, egoki iritzitako justifikazio eta agiriak alegatu eta aurkez ditzaten.

6. artikulua.– Elikagai-enpresa eta -establezimenduak baimentzeko eta ELEASEan inskribatzeko, aldatzeko eta ezerezteko prozedura.

1.– Baimenarekin, enpresa eta establezimenduek beren jarduera egin ahal izango dute. Baimen hori lortzeko, enpresa eta establezimenduek betekizun higieniko eta sanitarioak bete beharko dituzte, jarduera bakoitzari aplikagarri zaizkion araudian ezarritakoak, eta jarduerari dagozkion autokontrol-sistemak ezartzen direla bermatu beharko dute.

2.– Dekretu honen 2.1 artikuluan adierazitako animalia-jatorriko produktuen elikagai-enpresa eta -establezimenduen titularrek baimen sanitarioa eskatu beharko dute jarduera hasteko eta aldatzeko edo uzteko.

3.– Honela aurkeztuko da eskabidea:

a) Bitarteko elektronikoen bidez, bat etorri honako xedapen hauekin: Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua, eta Informatika eta Telekomunikazioen zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –PLATEA– ezartzen duen dokumentua onartzen duena. Horrela aurkeztu beharko dute, nahitaez, pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko entitateek, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) eta b) artikuluan ezarritakoarekin.

b) Pertsona fisikoek aurrez aurre ere aurkeztu ahal izango dute, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan, Osasun Sailarenean eta haren edozein lurralde-ordezkaritzatan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako tokietan.

4.– Edozein kasutan, I. eranskinaren arabera normalizatutako inprimakia bete beharko dute, eta II. eranskinean adierazitako dokumentazioa aurkeztu. Web honetan eskura daitezke bi dokumentuak: <http://www.euskadi.eus>

5.– Eskabidea ez badago osorik beteta, ez badira II. eranskinean adierazitako agiriak aurkezten edo ez badira betetzen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66. artikuluan adierazitako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio hutsa konpon dezala edo behar diren agiriak aurkez ditzala hamar eguneko epean; eta, era berean, adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, ebazpen bidez. Ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eman beharko da.

6.– Eskabidea behar bezala bete eta behar diren agiriekin batera jaso ondoren, ikuskapen-bisita egingo da, agiriok eskabidearekin bat datozela egiaztatzeko, enpresak edo establezimenduak aplikatzekoa den araudi sanitarioaren betekizun higieniko-sanitarioak betetzen dituela eta jarduerari dagozkion autokontrol-sistemak bermatzen direla egiaztatzeko, eta, horretarako, dagokion txosten sanitarioa emango da.

7.– Baimendutako jardueraren aldaketak eta jarduera uzteko komunikazioak ere dagokion ikuskapen-bisita egitea ekarriko du, aurreko puntuan adierazitako ondorio berberetarako, eta, horretarako, dagokion txosten sanitarioa emango da.

8.– Txosten sanitarioak lotesleak izango dira, eta, aldekoak badira, osasun publikoaren arloan eskumena duen zuzendariak baimen-ebazpena emango du jarduera egiteko, aldatzeko edo, hala badagokio, uzteko.

9.– Prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilekoa izango da, eskabidea aurkezten denetik aurrera. Epe hori eten ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.a) eta d) eta 22.2.b) artikuluetan ezarritako kausengatik. Epe hori igaro bada –etenda geratutako aldiak kenduta– interesdunari ebazpena jakinarazi gabe, eskabidea onetsizat joko da.

10.– Baimen-ebazpena Kontsumoaren, Elikadura arloko Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziari komunikatuko zaio, Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrean inskribatu eta identifikazio-zenbaki nazionala eman diezaion.

11.– Baimen-ebazpena ELESEan inskribatuko da, emandako identifikazio-zenbaki nazionalarekin. Aldatzea eta uztea ere inskribatuko dira.

12.– Eskabidean elikagai-enpresei eta -establezimenduei buruz adierazitako identifikazio-datuak eta horien aldaketek bat etorri beharko dute, une oro, ELESEko inskripzioan azaltzen direnekin; beraz, titularrek datu horietan gertatzen diren aldaketa guztiak komunikatu beharko dituzte, nahitaez.

13.– Emandako baimen sanitarioa baliogabetu egin ahal izango da, baldin eta modu nabarmenean aldatzen badira baimena ematea eragin zuten baldintzak eta baita jarduera behin betiko utzi dela egiaztatzen bada ere.

7. artikulua.– ELESEan komunikazioa egiteko, inskribatzeko, aldatzeko eta ezerezteko prozedura, elikagai-enpresa eta -establezimenduek bete beharrekoa.

1.– Dekretu honen 2.2 artikuluan aipatutako elikagai-enpresa eta -establezimenduen titularrek ELESEari jakinarazi beharko dizkiote beren identifikazio-datuak eta dekretu honen 4. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan zehaztutako jarduerak hasi ahal izateko datu esanguratsuak, eta, horrez gain, datuak aldatzen direnean eta jarduera uzten denean ere, horren berri eman beharko dute.

2.– Aurreko puntuan ezarritakoaren ondorioetarako, I. eranskineko ereduaren arabera normalizatutako inprimakia bete beharko dute, eta II. eranskinean adierazitako dokumentazioa aurkeztu.

3.– Komunikazioa honela aurkeztuko da:

a) Bitarteko elektronikoen bidez, bat etorritz honako xedapen hauekin: Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua, eta Informatika eta Telekomunikazioen zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– ezartzen duen dokumentua onartzen duena. Horrela aurkeztu beharko dute, nahitaez, pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko entitateek, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) eta b) artikuluan ezarritakoarekin.

b) Pertsona fisikoek aurrez aurre ere aurkeztu ahal izango dute, Eusko Jaurlaritzaren erre-gistroan, Osasun Sailarenean eta haren edozein lurralde-ordezkaritzatan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako tokietan.

4.– Edozein kasutan, I. eranskinaren arabera normalizatutako inprimakia bete beharko dute, eta II. eranskinean adierazitako dokumentazioa aurkeztu. Web honetan eskura daitezke bi dokumen-tuak: <http://www.euskadi.eus>

5.– Elikagai-enpresa eta -establezimenduen titularrek komunikazioa aurkeztea izango da ELESEan inskribatzeko baldintza bakarra, eta nahikoa. Nolanahi ere, gerora, osasun publikoan eta elikagaien arloan eskumena duten zerbitzu eta unitateek enpresa edo establezimendu hori kontrolatu eta behatu ahal izango dute, agiriak aurkeztutako dokumentazioarekin bat datozela egiaztatzeko, enpresak edo establezimenduak aplikatzekoa den araudi sanitarioan ezarritako betekizun higieniko-sanitarioak betetzen dituela egiaztatzeko eta jarduerari dagozkion autokon-trol-sistemak bermatzen direla egiaztatzeko. Kontrol eta zaintza hori berdin aplikatuko da jarduera aldatzen edo uzten denean ere.

6.– Erregistroaz arduratzen den organoak egiaztatuko du komunikazioetan aurkeztutako datuak eta agiriak zehatzak eta egiazkoak direla. Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Pro-zedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera, jakingo balu aurkeztutako komunikazioan osasun arloko Administrazioari eman zaion daturen bat zehazta-sunik gabea edo faltsua dela, edo zerbait adierazi gabe utzi dela, edo komunikazioa bera aurkeztu ez dela, horrek eragingo luke dena delako jarduerarekin jarraitzeko ezintasuna, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

7.– 4.4 artikuluan aipatutako enpresa eta establezimenduek aurkeztutako komunikazioa Kon-tsumoaren, Elikadura arloko Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziari jakinaraziko zaio, Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrean inskribatu eta identifi-kazio-zenbaki nazionala eman diezaion.

8.– Titularrek artikuluko honen 1. puntuan adierazitako enpresak eta establezimenduak inskri-batzeak ez du esan nahi xedapen honetan erregulatutako elikagai-enpresa eta -establezimendu horiei aplikatu beharreko arauak betetzen dituztenik.

9.– Jarduera hasteko komunikazioan elikagai-enpresei eta -establezimenduei buruz emandako identifikazio-datuek bat etorri beharko dute, une oro, ELESEko inskripzioan azaltzen direnekin, eta datu horietako batean aldaketarik badago, jakinarazi egin beharko da, I. eranskinean jasotako ereduaren bidez, baimen sanitarioarako edo komunikaziorako, kasuan-kasuan, lehenago deskriba-tutako prozedura bera erabiliz.

10.– ELESEan inskribatzeak ez du baztertzen elikagai-enpresek eta -establezimenduek eran-tzukizun osoa izatea haietan garatzen diren jarduerari aplikagarri zaizkien arauak betetzeari dagokionez.

11.– ELESEko inskripzioa indarrik gabe geratuko da, baldin eta inskripzioa eragin zuten baldintzak nabarmen aldatzen badira edo jarduera behin betiko utzi dela egiaztatzen bada.

8. artikulua.– Baimen- eta komunikazio-prozedurei buruzko arau erkideak.

1.– Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoarekin, interesdunak ez daude behartuta beste Administrazio batzuek egindako agiriak aurkeztera, betiere agiri horiek kontsultatzeko edo eskuratzeko baimen espresua ematen badute.

2.– Era berean, ez dute zertan aurkeztu beste Administrazio publiko batzuetan aurkeztutakoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua araberaren aurkeztu badira.

9. artikulua.– Publikotasuna eta datuen babesa.

1.– ELESE publikoa denez, agintaritza eskudunak, Euskal Autonomia Erkidegoko establezimenduen egoera administratibo eta sanitarioari buruzko informazioa bermatzeko, datuak argitaratu ahal izango ditu, egoki ikusten duen bezala, honako datu hauek barnean direla:

a) Izena edo izen soziala eta, hala badagokio, izen komertziala.

b) Esleitutako erregistro-zenbakia.

c) Establezimenduaren posta-helbidea.

d) Zer jardueratarako dagoen erregistratuta.

e) Establezimenduaren kalifikazio sanitarioa.

2.– Aipatutako erregistroari loturiko datu pertsonalen babeserako, datu pertsonalen babeserako aplikagarri den araudiaren araberaren jardungo da.

3.– ELESEan inskribatutako elikagai- jarduerari eta establezimenduari dagozkien datuak, Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrari buruzko otsailaren 18ko 191/2011 Errege Dekretuaren 6. artikulua araberaren, erregistro horretan inskribatu behar badira, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren Kontsumoaren, Elikadura arloko Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziara bidali beharko dira.

4.– Administrazio publikoek elkarri laga ahal izango dizkiote ELESEko datuak, estatistika eta kontrol xedeetarako.

10. artikulua.– Zehapen-araubidea.

1.– Dekretu honetako betebeharrak ez betetzea arau-hauste arintzat jo daiteke, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen VI. tituluko 36.2.a) artikulua 1., 2. eta 3. puntuetan tipifikatutako arau-hauste hauen araberaren:

a) Ez betetzea indarrean dagoen osasun-araubidea, ez-betetze horrek osasun publikoan zuzenean eraginik ez badu eta zerrenda honetan espresuki adierazita ez badago.

b) Behar den baimen edo erregistroa izan gabe edo indarreko epea igarota dagoenean gauzatea edo garatzea araudi sanitarioaren aginduz aurretiko administrazio-baimen sanitarioa behar duen edozein jardura, eta agintaritza eskudunaren baimenik gabe aldatzea baimena emateko berariaz oinarri gisa hartu ziren baldintza teknikoak edo egiturazkoak.

c) Ez betetzea agintaritza sanitarioekin lankidetzan jarduteko betebeharra, lege hau bete eta garatzeko emandako araudiak ezarritako erregistroak eta informazio sanitarioko agiriak egiteko, dela entitate eta pertsona arduradunek ez betetzeagatik datuak eta agiriak emateko prozedurak, dela lan horretan akats nabarmenak egiteagatik.

2.– Era berean, dekretu honetako betebeharrak ez betetzea arau-hauste astuntzat jo daiteke, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen VI. tituluko 36.2.a) artikulua 2. eta 8. puntuetan tipifikatutako arau-hauste hauen arabera:

a) Trabak jartzea datuak emateari, informazioa errazteari, edo agintaritza sanitarioekiko eta horien agenteekiko lankidetzari ikuskapen-lanen edo osasun-kontrolaren garapenean.

b) Arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egitea azken hiru hilabeteetan.

3.– Dekretu honetan ezarritako betebeharrak urratzen badira, halaber, Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzko uztailaren 5eko 17/2011 Legearen 50.1 artikuluan tipifikatutako arau-hausteren bat gertatu dela uler daiteke, haren 51. artikuluan ezarritako mailen arabera.

4.– Aipatutako arau-hausteetariko bat eginez gero, organo eskudunak hartutako ebazpen irmoan ezarrita badago, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legean xedatutakoari jarraikiz izapidetutako zehapen-espeditentia izapidetu ondoren, honako hauetan ezarritako zehapenen bat jarri ahal izango da: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 37.2 artikulua, eta Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzko uztailaren 5eko 17/2011 Legearen 52. eta 53. artikulua.

5.– Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearekin bat, arlo honetako zehapen-ahalmena osasun publikoaren arloan eskumena duen zuzendariari dagokio.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Datuen baliozkotasuna eta datuok ELESE deritzon erregistro berrian integratzea.

1.– Gaur egun, Euskadiko Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean dauden enpresa eta establezimenduen inskripzioek baliozkoak izaten jarraituko dute.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai-enpresa eta -establezimenduen ELESE izeneko erregistro berrian sartuko dira orain arteko elikagai-establezimenduen errolda guztiak, eta, ofizioz inskribatzeko, erregistro horien ardura duten Administrazioak euren artean koordinatuko dira.

3.– Dekretu hau indarrean sartzean denean errolatuta dauden elikagai-establezimenduek gorde egingo dute lehendik esleituta zeukaten inskripzio-zenbakia.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Kontrol sanitarioko sistemak.

1.– Elikagai-enpresen operadoreek AAKPK/HACCP (arriskuen analisia eta kontrol-puntu kritikoak) sistemako printzipioetan oinarritutako autokontrol sanitarioko sistemak sortu, ezarri eta mantendu beharko dituzte, Elikagaien higienari buruzko 852/2004 (EE) Erregelamenduaren 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko AAKPK estandarrean ezarritakoaren arabera beteko da betekizun hori (Osasun Sailak argitaratu du estandar hori Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren bidez).

2.– Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak autokontrol-metodologia baliokideak ezarri ahal izango ditu zehazten diren elikagai-sektoreetarako, osasun publikoaren arloan eskumena duen zuzendaritzak emandako instrukzioaren bidez; baina betekizun hori betetzeko modua sinplifikatu egingo

da, honako tresna hauek erabiliz, besteak beste: autokontrolerako plan orokorrak, plan generikoak, higieneko jardunbide zuzenak, edo AAKPK plan sinplifikatuak, operadoreen esku jarriko direnak.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Instalazio berean jarduten duten enpresak.

Titular bakar bat baino ezin izango da egon inskribatuta, bere izenarekin zein izen sozialarekin, helbide industrial berean; hau da, industria bere instalazio eta guzti kokatuta dagoen helbidean; horrenbestez, helbide industrial berean ezin izango dira inskribatuta egon eta ezin dituzte instalazioak partekatu bi titularrek edo gehiagok.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 223/1996 Dekretua, irailaren 17koa, elikagai-jarduerak, -industriak eta -establezimenduak Euskal Autonomia Erkidegoan jarduteko baimen sanitarioak emateari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Osasuneko sailburuaren 2002ko martxoaren 15eko Agindua aldatzea; jantoki kolektiboak eta azken kontsumitzailearentzako janari prestatuak egiten dituzten eta industrialak ez diren establezimenduak sailkatzeko eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bete behar dituzten neurri sanitarioak finkatzeko dena (2002ko apirilaren 25eko EHAA, 278. zk.).

1.– Beste era batera idatzita geratuko da Osasuneko sailburuaren 2002ko martxoaren 15eko Aginduaren 1. artikuluko 1. puntua (jantoki kolektiboak eta azken kontsumitzailearentzako janari prestatuak egiten dituzten eta industrialak ez diren establezimenduak sailkatzeko eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bete behar dituzten neurri sanitarioak finkatzeko agindua); hona hemen:

«1. artikulua.– Helburua eta aplikazio-eremua.

1.– Agindu honen helburua da jantoki kolektiboek, erakundeen jantokiek eta prestatutako janariak egiten dituzten eta industrialak ez diren establezimenduek bete behar dituzten eskakizun sanitarioak ezartzea eta horiek sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai-enpresa eta -establezimenduen erregistroan (ELESE) inskribatzeko ondorioetarako».

2.– Aldatu egingo da Osasuneko sailburuaren 2002ko martxoaren 15eko Aginduaren I. eranskineko 2.8 puntua (jantoki kolektiboak eta azken kontsumitzailearentzako janari prestatuak egiten dituzten eta industrialak ez diren establezimenduak sailkatzeko eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bete behar dituzten neurri sanitarioak finkatzeko agindua). Honela idatzita geratuko da:

«2.8.– Lehengaiak elikagaien arloko edo ekoizpen primarioko industria eta establezimenduen erregistroetan inskribatutako establezimenduetan eskuratuko dira. Hori egiaztatzeko, lehengaiak dagokien merkataritza-agiria izango dute».

3.– Aurreko aldaketek ez dute esan nahi agindu horri etorkizunean egin dakizkiokeen aldaketak dekretu-mailako arauen bidez egin behar direnik. Aldaketak osasun-arloan eskumena duen sailburuaren aginduz egin ahal izango dira.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Garatzeko ahalmena.

Osasuneko sailburuari ematen zaio dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko ahalmena, eta, bereziki, dekretu honen eranskinetan sartutako baimen-eskabideen eta komunikazioen ereduak egokitze funtsezkoak ez diren alderdiak egokitze ahalmena.

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko maiatzaren 15ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

MAIATZAREN 15EKO 79/2018 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

ELIKAGAI-ENPRESA ETA -ESTABLEZIMENDUEK BAIMEN SANITARIOA ESKURATZEKO ESKABIDEA / JARDUERA HASTEKO KOMUNIKAZIOA / INSKRIPZIO-DATUAK EGUNERATU DIRELAKO JAKINARAZPENA / JARDUERA UTZI DELAKO JAKINARAZPENA SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN SANITARIA / COMUNICACIÓN DE INICIO DE ACTIVIDAD / NOTIFICACIÓN DE ACTUALIZACIÓN DE DATOS DE INSCRIPCIÓN / NOTIFICACIÓN DE CESE DE ACTIVIDAD, DE EMPRESAS Y ESTABLECIMIENTOS ALIMENTARIOS					
ERREGISTRO-ZENBAKIA N.º REGISTRO					
Baimen sanitarioa eskatzea <i>Solicitud autorización sanitaria</i>		<input type="checkbox"/>	Izena edo izen soziala aldatzea <i>Cambio de nombre o razón social</i>		<input type="checkbox"/>
Komunikazioa <i>Comunicación</i>		<input type="checkbox"/>			Jarduera zabaltzea <i>Ampliación de actividad</i>
					<input type="checkbox"/>
Establezimenduaren egoitza aldatzea <i>Cambio de domicilio del establecimiento</i>		<input type="checkbox"/>	Egoitza soziala aldatzea <i>Cambio de domicilio social</i>		<input type="checkbox"/>
					Jarduera uztea <i>Cese de actividad</i>
					Osorik / Total
					<input type="checkbox"/>
					Partez / Parcial
					<input type="checkbox"/>
ESTABLEZIMENDUKO TITULARRAREN DATUAK DATOS DEL TITULAR DEL ESTABLECIMIENTO					
Izen-abizenak edo izen soziala <i>Apellidos y nombre o razón social</i>			IFZ edo IFK <i>NIF o CIF</i>		
Administrazio-ordezkarria (izen-abizenak) <i>Representante Administrativo (nombre y apellidos)</i>			IFZ edo IFK <i>NIF o CIF</i>		
Egoitza soziala (kalea, etab.) <i>Domicilio social (calle, etc.)</i>				Herria <i>Localidad</i>	
Udalerrria <i>Municipio</i>		Posta-kodea <i>Código postal</i>		Lurraldea <i>Territorio</i>	
Telefonoa/k <i>Teléfono/s</i>		Faxa <i>Fax</i>	Helbide elektronikoa <i>E-mail</i>		Webgunea <i>Web</i>
JAKINARAZPENERAKO DATUAK DATOS DE NOTIFICACIÓN					
Hizkuntza <i>Idioma</i>	Gaztelania <i>Castellano</i>	Euskara <i>Euskera</i>	Jakinarazpenerako bidea <i>Canal de notificación</i>		Posta <i>Correo postal</i>
					Internet <i>Internet</i>
Oharrak jasotzeko bidea <i>Canal de aviso:</i>		E-maila <i>Email</i>	SMSa <i>SMS</i>	Biak <i>Ambos</i>	Bat ere ez <i>Ninguna</i>
Jakinarazpenerako lekua <i>Lugar de notificación</i>		Titularra <i>Titular</i>	Beste batzuk <i>Otros</i>		
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA DOMICILIO DE NOTIFICACIÓN					
Jakinarazpenetarako helbidea <i>Dirección de notificación</i>					
Herria <i>Localidad</i>		Udalerrria <i>Municipio</i>	Probintzia <i>Provincia</i>		Posta-kodea <i>Código postal</i>
Oharretarako datuak <i>Datos de aviso</i>		Mugikorra <i>Movil</i>		E-maila <i>E mail</i>	

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

ESTABLEZIMENDUAREN DATUAK <i>DATOS DEL ESTABLECIMIENTO</i>			
Industria edo establezimenduaren egoitza <i>Domicilio del establecimiento/industria</i>		Herria <i>Localidad</i>	
Udalerría <i>Municipio</i>	Posta-kodea <i>Código Postal</i>	Lurraldea <i>Territorio</i>	
Merkataritza-izena: <i>Nombre comercial</i>			
ORDEZKARI TEKNIKOAREN DATUAK <i>DATOS DEL REPRESENTANTE TÉCNICO</i>			
NAN/AIZ <i>DNI/NIE</i> Ordezkapenaren titulua <i>Título de representación</i> Telefonoa/k <i>Teléfono/s</i> Faxa <i>Fax</i> E-maila <i>E-mail</i> Webgunea <i>Web</i>			
Gakoa <i>Clave</i> Kategoria eta jarduera <i>Categoría y actividad</i>			
LEHENENGOZ MERKATURATU DIREN PRODUKTU JAKINARAZIAK <i>PRODUCTOS NOTIFICADOS DE PRIMERA COMERCIALIZACIÓN</i>			
AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA <i>DOCUMENTACIÓN COMPLEMENTARIA PRESENTADA</i>			
1.- Titularraren NANaren, AIZaren edo IFZaren kopia <i>Copia del DNI, NIE o NIF del titular</i>	<input type="checkbox"/>		
2.- EJZren kopia <i>Copia del IAE:</i>	<input type="checkbox"/>		
3.- Establezimenduaren eskalan egindako plano edo krokisa (DIN A4 neurrian) <i>Plano o croquis del establecimiento, a escala (tamaño DIN A4)</i>	<input type="checkbox"/>		
ESTABLEZIMENDUAREN BESTE DATU TEKNIKO BATZUEN ADIERAZPENA <i>DECLARACIÓN DE OTROS DATOS TÉCNICOS DEL ESTABLECIMIENTO</i>			
1.- Egiten diren jarduerak eta egin edo merkaturatzen diren produktuak (1): <i>Actividades desarrolladas y productos que elabora o comercializa (1):</i>			
(1) Atal honetan, establezimenduaren jarduera partikularra zehaztuko da, ez bakarrik bere gakoari, kategoriari eta jarduerari dagokiena (1) En este apartado se especificará la actividad particular del establecimiento, no únicamente lo relativo a clave categoría y actividad.			
2.- Banaketa-esparrua / Ambito de distribución			
– Establezimenduan bertan egin eta saldu/ Fabricación y venta en el propio establecimiento <input type="checkbox"/>			
– EAE/ CAPV <input type="checkbox"/>			
– EAEtik kanpo/ Fuera de la CAPV <input type="checkbox"/>			
Aurreko titularraren datuak: / Datos del anterior titular: (que se impriman únicamente en el caso de cambio de Nombre o Razón social) / (inprima dadila bakar-bakarrik izena edo izen soziala aldatu bada)			

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

Establezimenduaren aurreko kokapena: / <i>Anterior ubicación del establecimiento:</i> (que se imprima únicamente en el caso de cambio de domicilio del establecimiento) / <i>(inprima dadila bakar-bakarrik establezimenduaren egoitza aldatu bada)</i>	
Tokia eta eguna: <i>Lugar y fecha</i>	Sinadura <i>Firma</i>
	Izena-abizenak: <i>Nombre y apellidos:</i>
	NAN edo AIZ: <i>DNI o NIE:</i>
<p>Interesdunari berariaz gogorazi nahi zaio:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Emandako datuak egiazkoak izan behar direla. – Jardueran aritzeko indarreko legedian ezarritako baldintzak bete behar dituela, eta halaxe egiaztatzen dituen agiriak eduki behar dituela. – Jarduera garatu bitartean baldintza horiek betetzen jarraitu behar duela. – Agiri honetan edo ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOAN jasotzen den edozein datutan aldaketarik badago, horren berri eman behar duela. – Jarduera uzten denean, horren berri eman behar duela. <p><i>Se recuerda a la persona interesada que:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Los datos consignados deben ser ciertos.</i> – <i>Que debe cumplir los requisitos establecidos en la legislación vigente para el ejercicio de la actividad y que debe disponer de la documentación que así lo acredite.</i> – <i>Que debe seguir cumpliendo dichos requisitos mientras realice dicha actividad.</i> – <i>Que debe notificar cualquier cambio que se produzca en lo expuesto en este documento o en la DOCUMENTACIÓN ADJUNTA.</i> – <i>Que debe notificar el cese de actividad, cuando se produzca.</i> 	

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko araudi aplikagarria betez, honen bidez, inprimaki honetan jarri ditudan datu pertsonalak «Elikadura-osasunaren kudeaketa» izeneko fitxategian sartzeko baimena ematen dut. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren ardurapean dago fitxategi hori. Helburua da elikadura-osasuna kudeatzea eta osasun publikoa babestea, instalazioen baldintza higieniko-sanitarioen eta elikagai- eta ostalaritza-establezimenduen manipulazio-jardueren segimendua egitea eta baimenak ematea. Jasotako datuak beste Administrazio Publiko batzuei utzi ahal izango zaizkie (Osasun Ministerioari, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioari eta toki- nahiz lurralde-administrazioei).

Nahi izanez gero, datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu edo aurkaratzeko eskubidea balia dezakezu. Horretarako, idatzi bat bidali beharko duzu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzara (Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz), edo bestela, dagokizun Osasuneko Lurralde Ordezkaritzaren Osasun Publikoko Zuzendariordetzara: Done Jakue hiribidea 11 – 01010 Vitoria-Gasteiz; Nafarroa hiribidea 4 – 20013 Donostia; Recalde zumarkalea 39 A – 48008 Bilbao.

De acuerdo con lo dispuesto en la normativa aplicable sobre protección de datos de carácter personal, por la presente doy mi consentimiento expreso a la inclusión de los datos de carácter personal contenidos en este impreso en la base de datos «Gestión de sanidad alimentaria». Dicho fichero está bajo la responsabilidad de la Dirección de Salud Pública y Adicciones. Su finalidad es Gestión de la sanidad alimentaria y protección de la salud pública. Seguimiento de las condiciones higiénico-sanitarias de las instalaciones y de las prácticas de manipulación de los establecimientos alimentarios y hosteleros. Concesión de autorizaciones. Los datos incluidos podrán ser cedidos a servicios públicos responsables de la producción de estadísticas (Eustat), al Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad y otros organismos públicos con competencia en materia sanitaria, a las Diputaciones y a Ayuntamientos.

Puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en cualquier momento. Para ello, deberá dirigirse a la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Departamento de Salud del Gobierno Vasco (calle Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz) o a la Subdirección de Salud Pública de la Delegación Territorial que le corresponda en las siguientes direcciones: Avda. Santiago, 11 – 01004 Vitoria-Gasteiz Avda. Navarra, 4 – 20013 Donostia-San Sebastián; Alameda Recalde, 39 A – 48008 Bilbao;

MAIATZAREN 15EKO 79/2018 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

INPRIMAKI NORMALIZATUAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA

1.– Baimen sanitarioaren eskabidea edo jarduera hasteko komunikazioa:

- Jardueraren titularraren NANaren, AIZaren edo IFKaren, IFZaren kopia.

- Bakoitzari dagokion ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) kopia. Bertan azaldu beharko dira titularraren izena edo, jardueraren egoitza gisa, establezimenduaren helbidea.

– Lokalaren planoak edo krokisa, eskalan, DIN A4 neurrikoa. Hauek agertu behar dira:

- Instalazioko eremu edo lokal bakoitza identifikatuta
- Azalera, guztira, eta eremu edo lokal bakoitzaren azalera
- Instalatuta dagoen makineria/ekipamendua, lan-eremuak eta ur-puntuak
- Planoa / krokisa ulertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio guztia.

2.– Baimen sanitarioaren eskabidea edo jarduera zabaltzeko komunikazioa:

– Establezimenduaren planoak edo krokisa, eskalan, DIN A4 neurrikoa (bertan azaldu beharko da zein eremu edo lokaletan garatuko den jarduera berri hori).

3.– Baimen sanitarioaren eskabidea edo egoitza industrialak aldatzeko komunikazioa:

– Bakoitzari dagokion ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) kopia. Bertan azaldu behar da establezimenduaren kokapen berria

– Lokalaren planoak edo krokisa, eskalan, DIN A4 neurrikoa. Hauek agertu behar dira:

- Instalazioko eremu edo lokal bakoitza identifikatuta.
- Azalera, guztira, eta eremu edo lokal bakoitzaren azalera.
- Instalatuta dagoen makineria/ekipamendua, lan-eremuak eta ur-puntuak.
- Planoa / krokisa ulertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio guztia.

4.– Izena/izen sozialak aldatzeko komunikazioa:

– Titular berriaren NANaren, AIZaren edo IFKaren, IFZaren kopia.

– Bakoitzari dagokion ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) kopia. Bertan azaldu beharko da titular berriaren izena (izen sozial berria).

5.– Egoitza sozialak aldatzeko komunikazioa:

– NANaren, AIZaren edo IFKaren, IFZaren kopia; bertan azalduko da titularraren egoitza sozial berria.

6.– Jarduera, partez edo osorik, uzteko komunikazioa:

– Ez da dokumentazio osagarriak aurkeztu behar; nahikoa da inprimakia bete eta aurkeztea (I. eranskina).